

noaua



HURBILAGOREN UDAZKENEKO AZOKA

Larunbete azokan denetarik salmenta postuak topatuko ditugu. Eta igandean, XXIV. Erle Eguna / 11. or.

ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

Panpa-lezka
landarea ezabatzeko
tailerra antolatu du
Anerrekak / 05



NOAUA

"Hurbilduz"
auzo-zaintza
proiektua aurkeztu
dute Santuenean / 8-9



NOAUA

Abenduaren 4an
'Pox, Mox eta Trumoi'
ipuinaz arituko dira
udal liburutegian / 12



DURANGOKO AZOKA

Usurbildar
artisten arrastoa
Durangoko
Azokan / 19



EGUNeko MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK

8:00-21:30 Asteartea eta asteazkena
8:00-22:30 Osteguna eta igandea
8:00-23:30 Ostirala eta Larunbata

Kalezar Auzoa 12, 0B, USURBIL 943732027



Marruecos

IRTEERA 2026ko maiatza



Noaoak gidatutako
talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

BIZI EUSKARAZKO ZINEA NOAUAREKIN

GAUA

AZAROAK 30, igandea 18:00tan SUTEGIKO AUDITORIOAN

SARRERAK: aldez aurretik salgai 6€tan usurbilkultura.eus plataforman.
Bazkideek 4€tan eskuratu ahal izango dute sarrera bat NOAUA!ko egoitzan

noaUA





Iñaki Ugarte Agirre, Errigorako kutxa eskuetan duela.



Juan Korta Etxeberriari ere Errigorako kutxa bat tokatu zaio oparitan.

Errigorako produktuen kanpainak egokitzen diren bakoitzean, bi saski oparitu ohi

ditugu NOAUA!ko bazkideen artean. Honakoan, argazkian diren bi lagunak izan dira zo-

rionekoak: Iñaki Ugarte Agirre eta Juan Korta Etxeberria bazkideak.

Bestetik, Errigorako saskiak dagoeneko NOAUA!n dira, eskuragarri.

Garbigune mugikorra, Santuenean

Azaroaren 27tik abenduaren 5era bitarte, Udalak garbigunea herritarrengana gerturatzeari xede duen zerbitzu mugikorra Santuenean kokatuko dute.

Bi astean behin egin ohi den bezala, errefusaren bilketa abenduaren 7an egingo da.

Udal aurrekontuen bozketa, azaroaren 26an

Azaroaren 26an asteazkena, arratsaldeko 18:00etan deitutako udalbatzaren osoko bilkuran bozkatuko dituzte hasieraz 2026ko udal aurrekontuak.

Gai gehiago ere hartuko dituzte ahotan; hala nola, 2026ko ordenantza fiskalen behin betiko onarpena.

1972. urtean jaiotakoak Patrin elkartuko dira

Abenduaren 6an Patri jatetxean batuko dira. Izena emateko, 50 euro sartu behar dira (izen abizenak jarrita), ondorengo kontu korronte zenbakian: 3008 0148 6055 9364 1623 (Rural Kutxa). Izena emateko azken eguna, azaroak 30. Informazio gehiagorako edo zalantzak argitzeko: 649 008 980.

Poltsa berrerabilgarriak, bertan erosteagatik

Usurbilgo saltokietan erosteari truke, poltsa isotermiko berrerabilgarriak eskuragarri dituzte.

Horietako bat eskuratzeko zer egin behar da? 30 eurotik gorako erosketa egin beharko duzue, poltsa isotermikoa opari gisa etxeratu ahal izateko.



Argitaratzailea:
Noaia Kultur Elkarte
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkarte@noaia.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubieda.
Kudeatzailea:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio Batzordea:
Aritz Lasarte, Asier Gonzalez de San Pedro, Imanol Ubieda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Ane Ibargoien.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaia.eus
Banatzalea:
Iban Maribalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 3.050 ale.
Inprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaia.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

IRITZIA



AINHOA AZPIROZ EIZMENDI

Ezpata leun eta ikusezina

Etxearen kanpoaldean obra handia egin behar izan dute: teilatua, fatxada eta beste hainbat egokitzen. Hilabeteetako obra izan da eta denbora guztian emaztea ibili da arkitektoarekin, igeltseroarekin eta pintoreekin hizketan. Langileek emazteari eman dizkiote azalpenak: nor noiz datorren, zer egin duten eta zergatik, zer ezusteko izan duten eta nola eman dioten irtenbidea... Emazteari kontsultatu dizkiote sortu zaizkien zalantzak eta erabakiren bat hartu behar izan denean hari galdetu diote. Emaztea izan da obrako langileekin hitz egin duena eta jarraipena egin duena, inolako arazorik gabe.

Dena normal eta ongi. Harik eta egun batean senarra ere han tokatu zen arte. Emaztea igeltseroari nola nahi zuten esaten, bezperako kontuak berritzen, eta igeltseroa senarrari begira eta hari azalpenak ematen. Gizonetik gizonera. Emaztea han egongo ez balitz bezala. Ordura arte emazteak egindako lana ikusezin bihurtuz.

Beste etxe batean kanpoan ez, barruan ari ziren obra txiki bat egiten, eta altzariak mugitu behar zituzten. Etxean bi alaba eta semea, hirurak sasoikoak. Bi lagun behar ziren armairu handia mugitzeko eta amak semeari eskatu zion. Lagun bati esateko eta bien artean lekuz aldatuko zutela.



"Emakume batek eta gizon batek proposamen berbera egin zuten bileran. Zergatik egin zitzaion kasu gizonari bakarrik?"

Eta bi alabak begiak zabal-zabalik amari begira. "Gu hemen egon eta kanpotik ekarri behar al dugu 'gizon' bat armairu hau mugitzeko?"

Ezkaratz batean urteko bilera egiten ari ziren bizilagunak. Argi kontsumoa gutxitzeko proposamenak eztabaidatzen ari ziren. 2. pisuko neskak detektagailua jartzea proposatu zuen, baina inork ez zion aurrerapenik eman. 3. pisuko alargunak bonbila batzuk kentzea iradoki zuen, baina ezezko borobila erantzun zion aldameneko ateko gizon jubilatua. 1. pisuko bikoteak LED argiak jartzea

"EZ AL ZAIO MAILA BAXUKO INDARKERIA DEITZEN HORRI? EDO INDARKERIA SINBOLIKOA?"

lehenetsi zuen, baina inork ez zuen argi ikusten aukera hori. 4. pisuko gizonetzko ingeniariak detektagailuak jartzea proposatu zuen eta hiruk baiezkkoa esan zuten berehala. Baina... ez al zen hori hasiera-hasieran 2. pisuko neskak planteatu zuena? Proposamena berbera izanda, zergatik ez zion inork baiezkorik eman hasieran neskari eta bai, ordea, gizonetzko ingeniariari? Zein da desberdintasuna?

Gertaera sutilak dira, bai; baina ez dira gertaera soilak. Ez al zaio maila baxuko indarkeria deitzen horri? Edo indarkeria sinbolikoa? Emakumeon konfiantza eta autoestimuan eragina duena? Emakumearen ikusezintasuna eta umilazioa bultzatzen dituen?

Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko Nazioarteko Eguna pasa berri dugu. Urteak beste 364 egun ditu.

Hasiz Hazi dirulaguntza deialdiari lotutako ebazpena

Urtebetez Kabiene Elkarlan Gunean proiektu berri bat garatzea ahalbidetzen duen beka deialdiari lotutako ebazpena kaleratu zuen Usurbilgo Udalak, azaroaren 24ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez. Ekintzaileei Kabiene Elkarlan Gunean urtebetez haien proiektuak garatzea ahalbidetzen dieten Usurbilgo Udalaren beka deialdia da Hasiz Hazi izenekoak. Urteroko dirulaguntza deialdi hau, gainerakoekin batera, iragan otsailaren 14an plazaratu zuen Udalak. Hortik aurrera, aurreko urteetan bezalaxe, bi epealdi finkatu zituen interesdunek eskabideak aurkez zitzaizten. Lehenengo epealdia maiatzaren 31ra artekoa izan zen. Tarte hartan ez zen eskabiderik aurkeztu. Bigarren epealdia, irailaren 30era artekoa izan zen. Kasu horretan bai, eskaera bat jaso zuen Udalak.

Gure Zirkua, kontzertu baten oholatza izango da

Abenduaren 7ra arte hamasei emanaldi programatu dituzte Urbil merkatalgunean. Saio guztietarako sarrerak agortu dira. Baina hitzordu horiez guztiez gain, kontzertu bati tarte egingo dio Gure Zirkua. Zeatikez talde donostiar berriaren kontzertua programatu dute haien instalakuntzetan. Abenduaren 4an izango da, iluntzeko 20:00etan. Sarrerak 3,5 eurotan jarri dituzte eskuragarri gurezirkua.eus atarian.





Panpa-lezka edo lumero landareak "habitat jakin batzuk guztiz eraldatzeko gaitasuna du". ARGAZKIA: WIKIPEDIA

"Landare honek arrisku handiak ditu biodibertsitaterako eta giza osasunerako"

Panpa-lezka landarea desagerrarazten ikasteko formazio praktikoa antolatu du Anerrekak. Larunbat honetan, goiz partean, Ugartondoko konpostagunearen ondoan. Dena den, izena eman behar da aldezturik.

IMANOL UBEDA

Cortaderia selloana, panpa-lezka edo lumero izenez ezagunagoa. Anerreka Ingurumen Elkartek aditzera eman digunez, "Gipuzkoan hedatu den panpa-lezka guztiaren % 80, Usurbil eta Irun arteko eremuan kontzentratzen da. Landare honek arrisku handiak ditu, biodibertsitaterako eta giza osasunerako".

Ekosistema ugartara egokitzeko duen gaitasun handiari esker, "beste espezie batzuk lekuz aldatzera edo zuzenean desagerraraztera

iritsi daiteke, hau da, habitat jakin batzuk guztiz eraldatzeko gaitasuna du". Adibidez, beste espezie batzuen biziraupenerako eguzkia behar duten inguruneetan itzalak sortzen ditu.

Panpa-lezka muturreko baldintzetan bizirauteko gai da. "Biodibertsitatearen ikuspegitik, bazterreko habitatetan sortzen da, adibidez, lur abandonatu edo degradatu batean. Bere luma handi batetik ehun mila hazi atera ditzake, haizeak oso erraz zabaltzen ditu, eta ez dago jakiterik noraino iritsi

daitekeen. Honek ugaltzeko duen gaitasun ikaragarriaz hitz egiten du", Anerrekak aditzera eman duenez. "Gainera, pertsonen osasunean ere eragina izan dezake, alergiak sortzen dituelako. Azkenik, suteak azkar zabal ditzakeen espezie sukoia da".

Foru Aldundiaren laguntzarekin Gipuzkoako Foru Aldundiak kanpaina berezia jarri du martxan, Usurbildik Irunerako eremuan panpa-lezka landarearen garbiketa eta kontrola egiteko. "Horregatik, Anerreka

elkartetik harremanetan jarri gara Aldundiko landareak babesteko zerbitzuekin, eta prestakuntza praktikoa antolatu dugu".

Helburuak

Formazio tailerrak helburu hauek ditu:

- Landare inbaditzaile honen problematikari buruz informatu eta sentsibilizatu usurbildarrak.
- Lokalizatzen laguntzea.
- Ahal den neurrian, landarea mozteko eta desagerrarazteko ekintza zuzenak egitea.

Anerrekaren ustez, "edozein herritarrek, batez ere lursail bat dutenek, parte har dezake prestakuntza horretan".

Formazio praktikoa Usurbilen

- Non: Ugartondoko konpostagunearen ondoan.
- Noiz: azaroaren 29an.
- Ordua: 10:00etan.
- Herritar guztiei zuzendua.
- Parte hartu nahi dutenek telefono honetara deitu dezatela: 646 449 358.
- Antolatzailea: Anerreka Ingurumen Elkartea.
- Laguntzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Oharra: hostoak zorrotzak dituzenez, gomendagarria da eskularruak ekartzea.

"LANDARE HONEK PERTSONEN OSASUNEAN ERAGINA IZAN DEZAKE, ALERGIAK SORTZEN DITUELAKO"

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA
• PLATER KONBINATUAK
• BOKATAK • PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
barkariak EGUNERO
• afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 • © 688 690 361



Azaroaren 14ean hasi zituzten emanaldiak Urbilen eta abenduaren 7an emango dute azkena. ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO

"Eszenografia aldatu dugu, baita saioak eta musikak ere"

JOSEBA USABIAGA GURE ZIRKUA

Joseba Usabiaga (Tolosa, 1981) Gure Zirkuko sortzaileetako bat da. Zortzigarren denboraldia amaitzen ari dira eta sarrera guztiak saldu dituzte. Ikusle denei eskerrak eman nahi dizkie.

ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO
Gure Zirkua zenbatgarren denboraldia da haxe?

Aurtengoa zortzigarren denboraldia da. 2018an egin genuen lehen bira, eta urtero 100-120 emanaldi egiten ditugu. 2020. urtea zaila izan zen, baina distantziak errespetatuz aurrera atera genuen.

Urtero zirkuko egitaraua aldatu egiten duzue?

Ia-ia urtero aldatzen dugu ikuskizuna. Jendeak asko errepikatzen du, eta zerbait desberdina eskaini behar zaie. Beraz, urtero aldatzen dugu ikuskizuna, eta urtariletik apirilera emanaldi berria presatzeko tartea hartzen dugu.

Aurreko denboralditik aurtengorara, aldaketak egin dituzue?

Ia-ia dena aldatu dugu. Eszenografia aldatuta dago goitik behera, saioak eta musikak ere ezberdinak dira. Esketx bat, adibidez, berdina da, jendeari gustatzen zaionez, mantentzea erabaki genuen.

"ETXETIK URRUTI IZATEN DITUGU EMANALDIK. BIZITZA NOMADA HORI DARAMAGU"

Partaide berriak ere hartzen dituzue denboraldi bakoitzean?

Ez du zertan denboraldi bakoitzean hala izan behar. Aurtent pertsona berri bat sartu da. Jendearen nahia ere horrela izaten da: batzuk utzi nahi izaten dute; beste batzuk proiektu berri batzuetan sartzen dira; edo guk diziplina

"AURTEN 100 EMANALDITIK GORA EGIN DITUGU ETA ORAINDIK BESTE 25 GERATZEN DIRA"

berri bat sartu nahi dugu eta pertsona konkretu baten bila jotzen dugu.

Zirkua karabanaz inguratuta dago. Bertan bizi zarete?

Bai. Egia da orain Usurbilen gaudela, eta etxera asko jotzen dugula. Ni tolosarra izanik askotan joaten naiz etxera lotara, baina hemen uneoro, gutxienez hiru pertsona gelditzen dira lotara.

Egia da maiatzetik irailera arte, astean sei egunetan hemen egoten garela. Etxetik urruti izaten ditugu emanaldiak, eta bizitza nomada hori ere izaten dugu.

Etxearen falta sumatzen da biran zaudetenean?

Bai eta ez. Hasierako urteetan bai, baina gero egin egiten zara. Adibidez, aurtent Lekeition izan gara hilabetez, eta karaban lo eta bizitza Lekeition egiten duzu. Lana eta oporrak bezala hartzen dituzu, eta beste era bateko planak egiten dituzu. Familia daukatenez, uztartu egin behar izaten dute lana eta familia.

Zergatik hilabete Usurbilen?

Guk hiru asteko egonaldiak egiten ditugu ikusleak asetu egiten direla uste dugulako, baina Urbilera iritsi baina dezentente lehenago dena salduta zegoen. Urbilekin hitz egin genuen, eta luzapena hartzeko aukera izan genuen. Beste herri batzuetan ezin dugu luzapenik egin.

Nolakoa ari da izaten aurtengo denboraldia?

Zorionez, ehun emanaldi egin ditugu aurtent, eta oraindik hogeitahogei hogei gelditzen zaizkigu, eta emanaldi bat kenduta, uste dut gainerakoak beteta izan ditugula.

Eta beti beteta edukitzeak presioa eragiten dizue?

Ez da presioa, ardura baizik. Jendeak ordaindu egiten du ikuskizuna ikusteko, eta txukun aritu beharra dago.



Estefanía de Paz Asin aktoreak 'Olvido Flores' antzezlan eskaini zuen Sutegin.



Josu Txuekaren esanetan, Espainiako Trantsizioa "ez zen eredugarria izan".

Francoren heriotzaren 50. urtemuga gogoan

Hil zenetik 50 urte bete ziren azaroaren 20an. Horren harira, bi hitzordu antolatu ditu asteotan Usurbil 1936 elkarteak.

ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO
Hasteko, "Olvido Flores" antzezlan programatu zuen hilaren 16an Sutegin. Estefanía de Paz Asin antzezleak 1936ko uztailean Lodosan izandako sarraskia irudikatu zuen. Bertan, gerran hil zituztenen be-

netako bi istorio kontatzen ditu.

Josu Txuekaren hitzaldia
Urtemuga egunean, azaroaren 20an, "50 urte Francorik gabe, 50 urte demokrazian?" hitzaldia antolatu zuen Usurbil 1936

elkarteak. Josu Txueka EHU-ko irakasle ohi eta historialariak Franco hil zenetik PSOE gobernura iristen den arte kokatzen du trantsizioa. Frankismoko hainbat erakunde – Guardia Zibila, eliza katolikoa, monarkia, armada... – "inola-

ko depuraziorik gabe" igaro ziren demokraziaren parte izatera.

Horregatik zioen trantsizioa ez zela izan "ez eredugarria ezta demokratikoa ere". Izan ere, trantsizio garaian frankismoak erabiltzen zituen hainbat teknika erabiltzen ziren: torturak, errepresioa, sindikatuak debekatuta zeuden...

Horretarako, garaiko hainbat adibide jarri zituen eta bertan izan ziren mugimendu esanguratsuenak: amnistiaren aldeko mugimendua, langile mugimendua, nuklearren kontrako mugimendua...



Juan Martin Elexpuru, Potxoenean.



Xosé Estévezek 'Orígenes del nacionalismo en Euskal Herria' aurkeztu zuen.

Amaitu da Nafartarrak taldekoen zikloa

Azaroaren 17tik 24ra antolatutako "euskal erreferentziak eta kontakizun espainiarra"

zikloa egin du Nafartarrak taldeak. Hasteko, Juan Martin Elexpuru bideraturiko

"euskalduntze berantiarra eta beste ipuin batzuk" izeneko solasaldia programatu zuten.

Biharamunean, "Ipuscua 1000 urte, Belmonte de Usurbil 650 urte" hitzaldia antolatu zuten, Patxi Olabarria eta Iñaki Idigorsekin.

Asisko Urmenetaren "Sorgina banaiz" dokumentala proiektatu zuten eta, azkenik, aste hasieran, Sutegi udal liburutegiarekin lankidetzan, Xosé Estévezek "Orígenes del nacionalismo en Euskal Herria (1893-1923)" liburua aurkeztu zuten.



Abiatzera doazen auzo-zaintza proiektua aurkeztu zuten Udalak eta Zabalduz kooperatibak azaroaren 20an Santuenean.

Bi ekimen, Santuenean bizigarriagoaren alde

Santuenean landua duten etorkizunerako plangintzan jasotako bi beharrei erantzuteko ekitaldi bikoitza egin zuten azaroaren 20an. Izan ere, bertan abiatzera doazen auzo-zaintza proiektua aurkeztu zuten. Horrez gain, frontoi ondoko auzo lokal berritua inauguratu zuten.

ARITZ LASARTE

Aginagan martxan jarri ostean, Santuenearen txanda orain. Auzo-zaintza egitasmoa aurkeztu eta abiarazteko lanei ekin diete bertan, lau urterako lankidetzak hitzarmena sinatua duten Usubilgo Udalak eta Zabalduz kooperatibak. Prozesu horri begirako mugarrira ezarri zuten azaroaren 20an Santueneako frontoi ondoko lokalean egindako aurkezpen ekitaldiarekin. Aginagan jada abiarazia dute auzo-zaintza egitasmoaren lehen esperientzia pilotua. Santueneakoa ez da guztiz berdina izango, tokian tokiko proiektuak garatu asmo dituzte eta. Baina antzekotasunak izango ditu noski; horien artean, "bizilagunak inplikatzeko" ezinbestekoa izango du. "Baliabide publikoak ez

dira aski, komunitatea aktibatu behar da, auzo-zaintza sare eta espazioak sortzea komunitatean eragiteko", nabarmendu zuten. Horretarako, ordea, "komunitatea ere prestatu behar da, denok zaintzailak izan gaitezen".

Bilan-lerro izango ditu; "helduak eta komunitatea", bilerara joandakoei azaldu zieten. "Batetik, bakardade egoera hauskorrean egon daitezkeen pertsonen Bizi

**"BALIABIDE
PUBLIKOAK EZ
DIRA ASKI,
KOMUNITATEA ERE
PRESTATU BEHAR
DA"**

Planak egingo dituzte, akonpainamenduari batera: pertsonaren nahiak erdigunean jartzen dituen plan pertsonalizatuak dira, euren ongizatea eta gizarteratzea bultzatzeko, bakardadeak pertsonengan sortzen duen narriadura fisikoa zein psikologikoa atzeratzea helburu. Bestetik, sentsibilizazioan eta aktibazioan oinarritutako den lanketa komunitarioa egingo da: zaintza sare komunitarioak indartzea

**"GOGOTSU GAUDE
ZUEKIN LAN
EGITEKO. HEMEN
ELKAR IKUSIKO
DUGU HURRENGO
HILABETEOTAN"**

izango da helburua, eta zenbait kasutan, berriak sortzea".

Gogotsu

80 urtetik gorakoei zuzendutako gutunak bidaliko zaizkie Zabalduz kooperatibakoen telefono zenbakiarekin. Zenbaki horretatik deituko zaie gero eskutitza jasotakoei. Hurrengo urratsa, hitzordua finkatzea izango da hala nahi dutenekin, norbere "beharrak, desioak, egoerak aztertu eta lan plana diseinatzeko". Laburbilduz, "zer behar duzuen eta zer moduz zaudeten" galdetzeko baliatuko dituzte topaketa presentzial indibidualok. "Osasuna, harremanak eta harremantzeko espazioak, etxebizitzetako irisgarritasun maila, zerbitzuekiko ezagutza..." gaiok hartuko dituzte ahotan, besteak beste, elkarriketa horietan. Hitzordu horiek garrantzia handikotzat jo zituzten "jakiteko zaintzarekin lotutako zer aspektu landu behar ditugun". Diagnostikaren fasea izango da. "Gogotsu gaude zuekin lan egiteko. Hemen elkar ikusiko dugu hurrengo hilabeteotan", azaldu zieten Zabalduz kooperatibako ordezkariak hitzordurara joandakoei.

Aginaga aitzindari

Aginagan martxan duten esperientziak antzeko abiapuntua izan zuen sustatzaileen esanetan. Gutunak bidali eta 65 urtetik gorako herrikideen erdia elkarriketatu zuten. Topaketen bigarren fasean dira, "berriz geratzen ari gara, zer atera den" partekatu eta nahi izanez gero, lanketarekin hasteko. Horrekin batera, komunitatean ere lanketa bideratu dute. Hortik talde eragile bat osatu dute. "Aginagako beharrak aztertu eta bildu ditugu, lehentasunak zehaztearekin batera"; horien artean, garai bateko zenbait ekintza berreskuratzea legoke, harremantzea, elkar ezagutza sustatzea. "Ekintzen zerrenda osatu dugu eta gauzatzen ari

—> gara", jakinarazi zuten Santuenean.

Bertara itzulita, auzo-zaintza egitasmo hau aktibatzeraz hel-du izanaren abiapuntua, Udalak eta auzokideek 2021ean lankidetzan bideraturiko diagnosia eta auzo plana izan ziren. Bizigarriagoa izatea xede zuen etorkizuneko auzoa diseinatu eta eraikitzen joateko hainbat behar identifikatu zituzten. Lanketa haren harira, urteotan egiten joandako hainbat hiri-gintza lanetatik haratago (aparkalekuak asfaltatzea, LED argiteria instalatzea...) urbanizazio proiektu bat dute eskuartean 2026ra begira, "aste gutxi barru aurkezteko moduan" izango direnak. Horrekin batera, hamarkada honen hasierako lanketan, Santueneako bizilagunek lehentasunen artean kokatu zuten helduenen zaintzaren gaia, inkestatuena %57ak hain zuzen; auzo elkarte ere egokitzea galdegin zuten. Ekitaldi berean, lekua egin zieten bi behar horiei emandako erantzunei azaroaren 20an, Hurbilduz egitasmoaren aurkezpenarekin eta frontoi ondoko lokal berriaren inaugurazioarekin. Auzo-zaintza proiektuak hala nahi eta behar duen auzokidea "bere ohiko komunitateko kide sentiaraztea" du erronka nagusi. Hurbilduz proiektua "hurrengo hilabeteotan, auzo gehiagotara eramatea da asmoa", Udalak eta Zabalduz kooperatibak aurreratu dute-nez.

"Zorte handia dugu"

Santueneak auzo bizitzarako, bertako dinamikei lekua egiteko gune berriua du. Berria ez, berriua, 2018tik zabalik dutelako. Azaroaren 20an inauguratu zuten Udalak eta Santuenea Kultur Elkartek. Urteotan ez da sarritan erabili. Santueneako jai batzordeak antolaketa lanetarako edota bere garaian Zumarte Musika Eskolak baliatu zuten eremu hori, egoitza berritzeko lanetan zuten artean. Gainerakoan,



Santuenea bizigarriagoa izateko urteotan auzo elkartearen eginiko lana aitortu zieten lokalaren inaugurazio ekitaldian.

aipatu zuten moduan, "erabilpen txikia izan du". Aldiz, urteotan auzo plana diseinatu dute Santuenean. Osteguneko inaugurazio ekitaldian gogora ekarri zuten, plan horretako "eskaeretako bat izan zen, lokal hau erabilpen komunitarioarako egokitzea; biltzeko eta sukalde bat egiteko. Hori zen eskaera eta hemen da". Egoitza hau, Santuenea bizigarriagoa egiteko jada zabalik diren gainerako instalakuntza sarera batu da. "Zorte handia dugu Santuenean hainbeste ekipamendu izateaz. Edozein auzotan baino udal ekipamendu eta lokal gehiago daude"; Santuenea 11ko Gure Elkartea jubilatuen bilgunearen egoitza eta taberna, haren alboan, Santuenea 12an, ikastaroen aterpe den Santuenea Kultur Elkartearen egoitza nagusia edota ludoteka Santuenea 16an. "Udalak

baliabideak jar ditzake, baina ez balego komunitate bat musutruk bolondres auzoarentzako aritzeko konpromisoa duena, lokal hauen ateak itxita egongo lirateke", nabarmendu zuten. Baina ez da halakorik gertatu. Zoriontzeko modukotzat jo zuten auzoan dituzten talde antolatuak: Santuenea Kultur Elkartea, Gure Elkartea, Ibai-Ondo elkarte edota jai batzordea. "Zer gutxi garen baina zenbat taldeetan antolatuak gauden eta zenbat ematen digun auzoak. Baliabide hauek horren mesedetan jartzera gatoz", nabarmendu zuten inaugurazio ekitaldian.

Bat egiteko deia

Ekitaldia, auzoaren alde lanean jarraitzeko gonbidapenean bilakatu zuten. Horretarako, udal finantziarioa nahiz txartelen salmenta bidezko di-

ru-sarrerak aski ez direla kon-tuan izanda, bazkide-tuz, auzo bizitza dinamizatzen diharduen kultur elkartearen egitasmoak sostengatzen jarraitzeko deia egin zuten. Iazko ekintzak, 2024koak bideo bidez proiektatu zituen Santuenea K.E.-k inaugurazio ekitaldian. Une honetan, urte amaierarako programatu dituztenei begira dira.

Omenduak

Santuenean eginiko ekitaldi bikoitzean, merezitako gorazarrea, aitortza eskaintzeko tartea ere hartu zuten. Auzo bizigarriagoa egin, girotu, dinamizatzen aritu eta auzotarrak Santuenearekiko duten atxikimendua sendotzea ahalbidetzen eginiko ahaleginagatik lore-sorta eta oroiragribana jaso zuen albiste honi atxikitako irudiko emakume taldeak. Irudikoak eta gehiago izan ziren omenduak, denek bertan egon izan zuten arren. Santuenea Kultur Elkartearen ibilbidean eginiko ekarpenagatik eskertu zituzten Mari-carmen Oroz, Alazne Lazkano, Amaia Zabala, Kontxi Landa, Arantxa Esnaola, Lucia Balse-ra, Josune Galatas, Txaro Utre-ra, Arantxa Motos, Maribi Arrospide eta Abelina Manso.

"AUZO-ZAINTZAK AUZOKIDEA BERE KOMUNITATEKO KIDE SENTIARAZTEA DU ERRONKA NAGUSI"

"ESKAERETAKO BAT IZAN ZEN LOKAL HAU ERABILPEN KOMUNITARIORAKO EGOKITZEA"

Zumartekoek 'Musikalean' kalejirarekin alaituko dute herria ostegun honetan



Ostegun honetako kalejira Zumarte Musika Eskolatik abiatuko da, 18:00etan.

Musikarien eguna “Musikalean” ekimenarekin ospatuko du ostegun honetan Zumarte Musika Eskolak:

Azaroak 27, osteguna

- 18:00 Euskal Herriko Musika eskola guztiek, bakoitzak bere herrian "Musikalean" kalejira. Usurbilgoa Zumarte Musika Eskolatik hasita tri-

ki-pandero, haizezko eta perkusio ikasleekin.

- 19:00 Talde instrumentalen kontzertua Sutegin. Flauta taldetxo, biolin taldea, kantu eskolako ikasleak, gitarra taldea, talde instrumentala, triki-pandero taldea.
- Sarrera: doan.
- Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola.

Hautzaroaren Nazioarteko Eguneko manifestua

Usurbil kide duen Oinherri herri hezitzaileen sareak manifestua kaleratu zuen azaroaren 20ko nazioarteko egun horren harira. Harekin bat egitera deitu gaituzte. Bost puntuko manifestuan, haurra subjektu politiko gisa aitortzen du; bere parte hartzea komunitateko erabakietan txertatzea galdegiten du; helduzentris-moa auzitan jarri eta haurren kulturaz jabetzera deitzen gaitu; hautzaroen beharrak asetu eta guztien askatasuna eskatzen du; azkenik, herriak haurren jolaserako bilakatzea galdegiten du.

Manifestuarekin batera, mundu mailako egun hau baliatu du Oinherri haurren eskubide hainbat aldarrikatu eta nabarmentzeko. Informazio gehiago oinherri.eus atarian jaso ahalko duzue.

Emozioen kudeaketari buruzko saioa

"Gure emozioak kudeatzen, seme-alaben bidelagun izateko" izeneko hitzaldia antolatu dute Udarregi ikastolako Hitz Aho Guraso Elkarteak, Gaztelekuak, Usurbilgo Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Treba Gurasoak egitasmoaren testuinguruan. Saioa abenduaren 1ean izango da, 17:30etan Potxoenean. Izena doan eman ahalko da usurbilkultura.eus plataformaren bidez. Plaza-kopurua mugatua izango dela ohartarazi dute antolatzaileek.



Treba Gurasoak-en ekimenez.

Afari solidarioako bilketa egingo dute asteburu honetan Usurbilgo frontoian

Donostiako Kaleko Afari Solidarioak (KAS) herri ekimena laguntzeko elkartasun otorduok prestatzen hasiko da Usurbilen herritar talde bat.

Lehen afari solidarioa begira, laguntza bilketa bideratuko dute asteburu honetan Usurbilen. Frontoi inguruan postu bat jarriko dute goiz partean.

Elikagai eta baliabide bilketa

- Egunak: azaroak 29 eta 30.
- Ordua: 11:00-14:00.
- Tokia: Usurbilgo frontoia.
- Zehaztasunak: Donostiako Kaleko Afari Solidarioak herri ekimenari laguntzeko herritar taldea osatu da Usurbilen. Horretarako, elikagai eta baliabide bilketa egingo dute azaroaren 29an eta 30ean.

Eraman beharrekoak:

- Elikagaiak: dilistak, olioak, pasta, arroza, kontserbako garbantzu eta lekaleak (haragirik gabeak).
- Baliabideak: laguntza ekonomikoa ere beharko da. Bertan, itsulapiko bat izango dute, nahi duenak borondatea eman dezan.
- Parte hartzea: afari solidarioak hilean behin egingo dira Usurbilen. Parte hartu nahi izanez gero bertaratu eta animatu parte hartzera.
- Antolatzailea: Usurbilgo Afari Solidarioak.

Informazio gehiagorako:

Ekimen honekin bat egiteko edo informazio gehiago jasoitzeko, haxe duzue harrematarako telefono zenbakia: 688 85 08 24.

Gure Zirkurako azken sarrerak agortu dira

Gure Zirkua ikuskizuneko karpak Urbil merkatalguneko aparkalekuan da asteotan. Abenduaren 7ra arte, hainbat funtzio eskainiko dituzte bertan. Azken asteburuko emanaldietarako txartel batzuk bakarrik geratzen ziren, baina aste hasieran agortu ziren.

Akelarreri buruzko dokumentala

Musika talde ezagunaren "Akelarre: marearen kontra" dokumentala ikusteko aukera izango duzue abenduko bigarren asteburuan; Aginagan eta Zubietan hilaren 12an, eta Usurbilen hilaren 14an. Sarrerak usurbilkultura.eus plataforman eskuratu ahalko dituzue.

"Almazenean" antzezlanaren Aginagan

Iker Galartzairen eta Zuhaitz Gurrutxagaren emanaldia abenduaren 13rako antolatu du Eliza Zaharra Elkarguneak. Emanaldirako sarrerak 8 eurotan eskura ditzakezue usurbilkultura.eus plataforman edota Aginagako bertako Arrate ostatuan.

Independentzia Eguna

Buruntzaldeko Ernaik Independentzia Eguna antolatu du abenduaren 13an Usurbilen. "Gazte independentistok zita garrantzitsua izango dugu Usurbilen. Guk argi dugu, gazteok independentzia!", adierazi dute sare sozialen bidez. Xehetasun gehiago, hurrengo aldizkarian.

Hurbilagoren kanpaina fresko eta gozoak, Udazkeneko Azokaren atarian

Usurbilgo saltokietan erosten baduzu, bonboi bat oparituko zaizu. Hori gutxi balitz, poltsa isotermiko berrerabilgarriak eskuratu ahal izango dituzu.

ARITZ LASARTE

Bi kanpaina abiarazi ditu asteotan Hurbilago elkarteak. Batetik, poltsa isotermiko berrerabilgarriak eskuratu ahal ditzakezue Usurbilgo saltokietan erosteko, 30 eurotik gorako erosketak herrian bertan egitearen truke hain zuzen. "Mantendu zure produktuak beti fresko eta gozatu bertako kalitateaz", egin du gonbita Hurbilago elkarteak. Guztira, mila poltsa berrerabilgarri jarri dituzte guztion eskura.

Bonboi bat opari

Bestalde, bonboien kanpaina ere jarri du martxan. Herriko saltokietan erosketak egitearen truke bonboi bat oparituko zaigu. Adi, jaki gozo horri. Izan ere, urre kolorekoa bada, 100 euroko erosketa balea egokitu-ko zaizu herriko saltokietan xahutu ahalko duzuna.

Ekimenekin batera, gogoan izan, Udazkeneko Azoka ere antolatu du larunbaterako, hilaren 29rako aipatu Usurbilgo elkarteak. Bertan, besteak beste, 650 Usurbil Bizi otarra aurkeztuko dute.



Poltsa isotermikoen kanpainarako, merkatariek ateratako argazkia.

Azaroak 29, larunbata: Hurbilagoren Udazkeneko Azoka

• 11:30-14:30 Azokako salmentak postuak: liburu eta diskoen azken nobedadeak, ipuinak, egutegiak, koadernoak, jostailuak, kamisetak, sudaderak, poltsak, motxilak, zeramikak, bitxiak, akuarela laminak eta ilustrazioak, gazta, ogia eta bestelako kutixiak.

• Azokan zehar, gaztainak eta sagardoa doan (azokan erosketa eginda) eta pultsera tailerra (Ziortza Gazte Elkartearen eskutik).

- 13:30 650 Usurbil Bizi otarren aurkezpina.
- Herritarren postuak: Arenza, Azi, Dale kandela, Iñurri, Jox, Lizardi liburudenda, makaë, Mikel Zubelzu, Sleepy Mimosas, Xükâ Eskuz Egina, Ziortza.
- Kanpokoak: Agur.Handmade, Aldaxka eskuz egina, Amaetabiok, Bihurri, Ciabellaidoo, Crea, Esther Gonzalez, Haritxoa, Hemendik Hara, Lajtau Crafts, Mumi Handmade, Nahi Bitxiak, Ni Naiz, n.mone, Norte Jewellery, Osabi Naturala, Tai Day Studio, Urluma.



Igandean, Erle Eguna.

Urteko asteburu gozoena

Urteko azoka gozoe-na ospatuko da asteburuan:

Azaroak 29, larunbata

• 17:30 "Argizaiola" liburu aurkezpina Salbatore parrokian.

Azaroak 30, igandea

- 09:00-10:00 Ezti eta gozogintza bilketa.
- 11:00-14:00 Azoka: produktuen salmenta, erakusketak Sutegin, Marrazki Lehiaketako lanak, bi-deoak. Horrez gain: ezti dastaketa frontoian, eztiarekin eta txokolatearekin egindako goxoak, argizaiola, Balerdipekoen eskutik, kandelak egiteko aukera.
- 13:30 Euskal Herriko 24. Ezti, gozogintzako eta marrazki lehiaketaren sari banaketa.
- Antolatzailea: Erle Lagunak.
- Laguntzailea: Udala.

Badator San Tomas Azoka

Abenduaren 14an izango da NOAUA! Kultur Elkar- tearen antolaturiko aurtengo azoka. Jan-edana izango da, hainbat postu, musikatua egongo da hitzordua, eta, nola ez, babarrun eta sagardo txapelketen sari banaketa ekitaldia egingo da. Interesdunek abenduaren 5era arte eman ahalko dute

izena bi lehiaketa horietan parte hartzeko. Sagardo txapelketan, etxean ekoizten dutenek parte hartu ahalko dute, sagardotegiek ez. Par- taide bakoitzak 6 botila ekarri beharko ditu, eta botila ba- koitzeko 2,5 euro ordainduko zaio (15 euro guztira). Babarrun lehiaketari dagokionean, par-

taide bakoitzak kilo bat baba- rrun ekarri behar du eta 15 euro ordainduko zaio. Jaki eta edariok NOAUA! Kultur Elkar- tearen egoitzara ekarri behar- ko dira abenduaren 5a baino lehen, astelehenetik ostirale- ra, 8:00-13:00 artean edo 16:30-18:30 artean.

Informazio gehiago, elkar- tearen egoitzan bertan edo 943 360 321 telefono zenba- kian.

Zuberoako ikastolen aldeko otarrak

Azaroaren 21era arte eskabi- deak bideratu dituzuenontzat oharra segidan. Zuberoako ikastolen aldeko otarrak aben- duaren 14ko NOAUA! K.E.-ren San Tomas azokan banatuko ditu Nafartarrak taldeak jarri- tako postuan. Bestela, gerora, NOAUA!-ren egoitzan jaso ahalko dituzue.



Argazkian, 'Pox, Mox eta Trumoi' ipuinaren egileak. Aste honetako NOAUA!rekin batera banatu dugu argitalpena. NOAUA!

"Pox, Mox eta Trumoi umeengandik hurbil dauden hiru iratxo dira"

YOLANDA ARRIETA ETA ANE ARZELUS IDAZLEA ETA ILUSTRATZAILEA

Euskararen Egunaren atarian, ipuin bat plazaratzen dugu NOAUA!rekin batera. Ixabel Agirresarobe eta Mattinekin zabaldu genuen bidea 2019. urtean. Ainara Azpiazu 'Axi'-k eman zion segida egitasmo honi. Yolanda Arrietak eta Ane Arzelusek hartu dute lekukoa. Pox, Mox eta Trumoi iratxoen lehen abentura astekari honekin batera jaso duzue.

IMANOL UBEDA

Ipuineko protagonistak hiru iratxo dira. Iratxoak ohikoak dira herri kondairetan, ezta?

Yolanda Arrieta: Ipuina idazten hasi aurretik, lehenik eta behin hartzailea izan genuen buruan. Ume txikiak dira, irakurtzen ikasi aurrekoak, edo ikasten ari direnak. Lehenengo irakurleak. Horiek izan ditugu buruan eta halakoxeak dira: ez dira iratxoak, baina lepoa oraindik txikia dute eta bon-bon-bon mugitzen dira. Hartzailearengandik oso hurbil dagoen norbait nahi genuen. Iratxoa ez da animalia, gizaki-gizakia ere ez... Gauza txikiak

dira, lagun ezkutukoak. Horrek denak irakurtzen eta idazten hasi aurretik dagoen aldi hori islatzen du.

Hiru dira protagonistak eta hiru dira osatuko dituzuen ipuinak.

"HIRU PERTSONAIA SORTU DITUGU, HIRU URTEOTAN IPUIN BANA PLAZARATUKO DUGULAKO"

YOLANDA ARRIETA, IDAZLEA

Y. A.: Hiru pertsonaia sortu ditugu, hiru urteotan plazaratuko dugulako ipuin bana. Eta urte bakoitzean bat izango da protagonista nagusia.

Hiru ipuin eta hiru pertsonaia; horrek joko asko eman

"PROTAGONISTA BAKOITZA EMOZIO BATEKIN LOTU DUGU, EMOZIOAK PERTSONAIAK BIHURTUZ"

YOLANDA ARRIETA, IDAZLEA

dezake. Eta emozioekin lotuko bagenitu? Protagonista bakoitza emozio batekin lotu, emozioak pertsonaia bihurtuz.

0-6 urte bitarteko umeentzat da ipuina. Iratxoekin identifikatzeko ezaugarri asko topa ditzakete ipuin honetan.

Y. A.: Iratxoa domestikatu gabeko gizaki bat da oraindik. Eta horrek joko handia ematen zigun, adin horretako umeek egiten dituzten gauza asko egiteko aukera eskaintzen digulako. Aldi berean, ez dira umeak, iratxoak dira. Ez dakizu zenbat buelta eman genizkion iratxoaren formari. Belarriak fintzen, ertzak leuntzen....

Ipuin bakoitzean pertsonaia bat gailenduko da, beraz, ipuin bakoitzean emozio bati buruz jardungo duzue. Aurtengo ipuinean, haserrealdia irudikatu duzue.

Y. A.: Hiru ipuin osatu behar ditugunez, ipuin bakoitzak emozio baten inguruan aritzeko aukera eskaintzen zigun. Baina hiru emozioak hiru ipuinetan agertuko dira. Emozioak ere, batzutan ez direlako hain gardenak. Hiru emozioak daude, baina ipuin bakoitzean bat gailenduko da. Gainera, hiru pertsonaia dira, baina beti daude elkarrekin.

Pertsonaia bakoitzak bere izaera propioa du. Aldi berean, elkarren osagarri dira hiru iratxoak, ezta?

Y. A.: Horrekin ibili gara. Hor dago gakoa. Egoerak eguneroak dira. Lehen ipuin honetan kasketari heldu diogu. Askotan, nagusiontzat, kasketak tontakeriak dira. Norberari gertatzen zaionean ordea, gatazka handia da, ezta? Haserrea, amorrua... horrekin jolastu dugu.

Hortaz, Trumoi iratxo baten izaena da eta emozio baten erakusgarri.

Y. A.: Hitz jokoak asko gustatzen zaizkit. Pox, poza da. Mox; motz, triste... Eta Trumoi.

—> Pox, Mox eta Trumoi. Fonetikoki ere oso polita da.

Dena den, Trumoi ez da beti gatazka iturri izango. Ipuinean deskubrituko dugun moduan.

Y. A.: Momentu batean boom egingo du, orduan agertzen da bere haserre hori. Emozioei dagokionez, denok dugu denetarik, ez dago emozio gardenik.

Ane Arzelus: Ipuin honetan ikusiko den moduan, ez daude emozio onak eta emozio txarrak. Sinpleki, emozioak dira. Hor daude eta denok dauzkagu, gehiago ala gutxiago. Haserrea adibidez, pasatzen den zerbait da, eta hori naturalizatu egiten du ipuin honek.

Y. A.: Emozioen inguruko liburu pila bat atera dira azkenaldian. Emozio txarrak, emozio onak... Baina sentitzea, sentitzea da. Eta egoera baten aurrean denak sentitu gaitezke Trumoi, denak sentituko gaitezke Mox, denak sentituko gaitezke Pox. Horri buruz idatzi nahi genuen, baina ume txikiek ere ulertzeko eta sentitzeko moduan. Hor mugitu gara. Lehen ipuinean, kaske-tari tokatu zaio.

Iratxoak pertsonaia fantastikoak dira, mitologikoak, belarri puntadunak, naturari lotuta.... Pox, Mox eta Trumoi bestelakoak dira.

A. A.: Pertsonaiak diseinatzerakoan, asko hitz egin nuen Yolandarekin. Nik iratxoa irakurri nuenean, kondairetako iratxo horiek zetozkidan burura. Eta Yolanda esaten zidan, iratxoak dira, baina modu abstraktu batean.

Iratxoaren figurari buelta asko eman genizkion, errealitatetik aldenduta dagoen puntu hori eman nahi genion, baina aldi berean, ume baten iruditik gertu egon behar zuen. Marrazteko garaian, umeen marrazkietan inspiratu nintzen, hartzaileentzat gertukoa izan zedin. Pertsonaiak iratxoak dira, baina modu malgu batean. Txapelak jarri nizkien hasiera batean, eta Yolanda,



Abenduaren 4an, 'Pox, Mox eta Trumoi' ipuinari buruzko irakurketa-solasaldian hartuko dute parte. 18:00etan, udal liburutegian. 0-6 urteko haurrentzat izango da.

“kendu, txapela kendu”. Eta ados nago. Uste dut politago daudela horrela. Kondairetako iratxo horietatik aldentzen dira.

Y. A.: Guk beste iratxo batzuk egin ditugu.

A. A.: Etxetiarragoak dira hauek.

Y. A.: Pox, Mox eta Trumoi ez daude kondairetan. Ipuin honetan bakarrik daude.

A. A.: Beren etxetxoan.

Nortasun bakoitza kolore batekin lotu duzu, ezta?

A. A.: Hala da.

Ez da kasualitatea Trumoiarentzat gorria aukeratu izana.

**"HASIERATIK ARG
IKUSI NUEN POX,
MOX ETA TRUMOI
IPUINA HIRU
KOLORETAN EGIN
BEHAR NUELA"**

ANE ARZELUS, ILUSTRATZAILEA

A. A.: Yolanda egitasmo hau aurkeztu zidanean, oso argi ikusi nuen hiru koloretan egin behar nuela. Koloreen identifikazioa oso kulturala dela uste dut, konexio hori eginda daukagula oso txikitatik. Goibeltasuna, urdina dela; haserrea edo amorrua edo pasioa gorria dela; eta alaitasuna, horia. Kolore primario horietara jo nuen. Nik arte munduko erreferentzia pila bat ditut. Mondrian-en koadroak oso argi ikusi nituen. Kolore arteko kontraste polita dago bere artelanetan, forma oso argiak... Diseinu grafikotik nator gai-

**"DISEINU
GRAFIKOTIK NATOR
ETA ELEMENTU
GUTXIREKIN LAN
EGITEA GUSTATZEN
ZAIT"**

ANE ARZELUS, ILUSTRATZAILEA

nera, eta elementu gutxirekin lan egitea gustatzen zait, ahalik eta gehien komunikatzeko.

Irudiek ere asko esaten dute ipuin honetan, ezta?

A. A.: Hori da.

Y. A.: Album formatua genuen buruan. Hitzaren, irudiaren eta espazioaren artean konstatzea ipuina. Batak esaten ez duena besteak esaten du. Oinarrira jo behar genuen.

Iratxoaren generoa ez dago argi. Eta akaso ez dago horren inguruko azalpenik eman beharrik.

Y. A.: Neutroak izango dira. Listo. Berehala argitu genuen.

Y. A.: Euskarak gainera, asko laguntzen du horretan. Neutralitatea hizkuntzan ere badago.

Elkarrekin lan egin duzue aurretik ala hauxe izan da zuen arteko lehen elkarlana?

A. A.: 2020. urtetik nago irudigintzan lanean. Eta irudigintzan hasi nintzen, hain juxtu, Bikoteka izeneko tailerrean parte hartu eta gero. Yolanda Arrietak eta Aitziber Alonsok eskaini zuten urte hartako tailerra. Ordura arte publizitate agentzia batean ari nintzen lanean.

Y. A.: Bikoteka Nafarroan eskaintzen duten tailer intentsibo bat da. Idazleak eta ilustratzaileak bikoteka jartzen dituzte elkarlanean, eta elkarlan horretatik album ilustratu baten proiektua sortzen dute.

A. A.: Niri mundu berri bat zabaldu zidan ikastaro hark eta bertan ezagutu nuen Yolanda.

Y. A.: NOAUA!ren proposamena jaso nuenean, Anerekin akordatu nintzen berehala. Pox, Mox eta Trumoi ideia garatzeko, irudigileak grafikotasunetik ere izan behar zuen. Kontzeptualago izan behar zuen.

Ane Amaran bizi da gainera, eta horrek ere laguntzen du. Ze bestela, oso zaila da. Kafe baten bueltan, guk gauza asko atera ditugu aurrera.

"Marraztuz amaitu nahiko genuke solasaldia"

Yolanda Arrietak eta Ane Arzelusek abenduaren 4an aurkeztuko dute ipuina Sutegi udal liburutegian. 18:00etan hasiko da eta 0-6 urte bitartekoentzako saioa izango da.

IMANOL UBEDA


Nola izango da abenduaren 4ko aurkezpen solasaldia?

Yolanda Arrieta: Anek marraztu egingo du. Bakartxok lortu dizkigu 'astoa' eta pape-rak. Umeek ikusi egingo dute Anek nola marrazten duen.

Nik nire aldetik, lehenbizi saioa girotuko dut. Musika pixka bat jarriko dugu. Eta gero hasiko gara ipuina kon-tatzen. Lehenbizi azala era-kutsiko dugu, eta ikusiko dugu zenbat gauza dauden eta zenbat gauza egon dai-

tezkeen barruan. 'Pox, Mox eta Trumoi. Ederra kasketa!' ez dugu osorik kontatuko, ze ipuin hau etxean irakur-tzeko da. Baina zati batzuk bai, irakurriko ditugu eta nola egin dugun ere azaldu-ko dugu.

Eta amaitzeko, marraztuz amaitu nahiko genuke. Fa-milia bakoitzak emozio bat, pertsonaia bat marraztu ahal izango du eta ondoren gai-nerakoei erakutsi. Zer aterako den? Orduantxe ikusiko dugu.



Abenduaren 4an Sutegi udal liburutegian izango dira bi egileak.

Papera eta margoak eraman beharko dira?

Y. A. Ez, materiala hemen izango dugu (udal liburute-

gian). Familiak margotuko dugu. Eta horrela, iratxo fa-milia edo iratxo herria osatu-ko dugu denon artean!

Abenduak 14
IGANDE GOIZEZ

SAN TOMAS

lehiaketan parte hartzeko deialdia



Herritarrek sagardo eta babarrun lehiaketan parte hartu ahal izango dute. Parte hartzeko azken eguna **abenduak 5**.

- 1.saria: 300 € + txapela
- 2. saria: 150 €
- 3. saria: 60 €

Noauak baserritar guztiak gonbidatu nahi ditu

noaua





Maddi Olaetxea, Adunako lasterketan. ARGAZKIA: AIURRI



Pasa den asteburuan gogotik egin zuen elurra Andatza partean. IRISASI BTT

EH-ko Mendi Duatloi Zirkuituko txapeldunak

Nesken artean, Maddi Olaetxea Usabiaga izan da nagusi eta mutilen artean, Josu Urrestarazu Garcia.

Amaitu da aurtengo Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuitua eta herri hau du garaile. Izan ere, hamabosgarren edizioako banakako modalitateko garaileek sorleku edo bizileku udalerrri hau dute; Maddi Olaetxea Usabiagak eta Josu Urrestarazu Garciak hain zuzen.

Biak oso erregularrak izan dira txapelketa osoan

Bi modalitateetan jokatu da txapelketa hau; banaka nahiz erreleboka. Zazpi proba jokatu dira irailaren 27az geroztik azaroaren 15era arte Euskal Herriko txoko hauetan; Asteasun (irailaren 27an), Durangon (urriaren 4an), Idiazabalen (urriaren 11n), Kanpezun (urriaren 18an), Aian (urriaren 25ean), Ibarran (azaroaren 1ean) eta Adunan (azaroaren 15ean).

Biek zirkuitu hau hasi beza-la amaitu dute, txapeldun. Parte hartu duten proba guztietan lehen bi postuetan amaitu dute. Zazpitik sei hitzorduetan lehiatu dira Olaetxea eta Urrestarazu.

Lehen eta azken proban, bi usurbildarrak nagusitu ziren

Asteasun biek txapeldun amaitu zuten, Durangon Josuk bigarren, Idiazabalen Maddik hirugarren postuan eta Josuk lehenengoan. Kanpezukoan Urrestarazuk garaile eta Olaetxeak emakumezkoetan bigarren bukatu zuen, Aiakoan biek txapeldun, Ibarrakoan Maddik garaile eta Adunako proban, biek lehen postuan amaitu zuten.

Informazio gehiago, mendiduatloia.eus atarian jaso ahaliko duzue.

Irisasi BTT proban izena eman eta otar baten zozketan parte hartu

Mendi bizikletan ibiltzeko ohitura duten askok jakin badakite noiz egingo den Irisasi BTT hotzak akabatzen 2025 proba: urtarrilaren 25an. Andatzako kirol ospakizunean parte hartzeko, izena eman behar da aldeztu aurretik. Irisasi BTT taldeak duela aste batzuk sare sozialen bidez aditzera eman zuenez, "lehen 400 izen-emateek mailota eskuratzeko aukera izango dute. Gogoratu mailotaren neurria aukeratzeko azken eguna abenduaren 11 izango dela".

Azken egunetan izen-emateek gora egin dute "eta ospatzeko, Bruñok emandako

itsaski otar bat zozketatuko dugu abenduaren 12a baino lehen izen ematen dutenen artean. Abenduaren 13an egingo dugu zozketa eta irabazleak Irisasi BTT probaren ondoren jasoko du saria frontoian".

Andatza, elurtuta

"Andatza gaur ere elurtuta agertu zaigu". Aurreko ostira-lean, elurtuta esnatu zen mendia eta Andatzakoek argazki batzuk eta bideo bat partekatu zituzten sare sozialetan: "Neguko mailota eta botinak jantzita, gozatzeko moduan dago", zioten.

Usurbildarren izen-emate eskusiboa ixtear da Ibai-Ondo Backyard proban

Azaroaren 28ra arte usurbildarrek izango dute lehentasuna izena emateko. Izen-emate orokorra berriz, abenduaren 2tik aurrera iragarri dute.

100 laguntzako tokia egongo da eta haietatik 25 plaza herrikideentzat izango dira,

haietatik bost Santueneko Ibai-Ondo elkarteak bazkideentzat. Prezioa, 45 eurokoa izango da. 2026ko proba martxoaren 28ko asteburuan jokatuko da. Informazio gehiago ibaiondobackyard.eus atarian jaso dezakezue.

Zuen iragarkia hemen

publizitatea@noaua.eus
747-486-835

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
· oilasko erreak, ogitarteak, raziok...
· paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrea 6, Usurbil.

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42



NOAUA! Jardunaldian tresna digitalen bidez sustatzen den komunikazioa izan zuten mintzagai.

Sare sozialen korapiloez hausnartu dute

"Adi entzun, gozo idatzi" izeneko jardunaldia antolatu zuen NOAUA! Kultur Elkartek azaroaren 19an Potxoenean. Pantailen bidezko komunikazio ereduaz jardun zuten aditu eta arituekin. Zer hausnartua eman zuen hitzorduak.

"Hausnarketarako tresnak eskaintzea" zuen xede hitzorduak eta horixe, zer pentsatua eragin zuen NOAUA! K.E.-k azaroaren 19an Potxoenean antolaturiko "adi entzun, gozo idatzi" jardunaldiak. Alfabetatze mediatikoa eta gazteekin lan egiten duten eragilearen artean tresna digitalen erabilera osasuntsua sustatu nahiz gaia herriratzeko izan ziren Idoia Torregarai zuzenduriko saioaren xede nagusiak. Lehenbizi, teknologia libreak eta ekonomia sozial eraldatzailearen markoan dabilzan enpresa eta kooperatiben bilguneke TEKS elkarteko kide Mattin Solisek hartu zuen hitza. Komunikazio burujabe baterantz jo ahal izateko hainbat gako

eskaini zituen, geure datuak geure kontrolpetik kanpo helburu komertzialekin ustiatzen dituzten sareak nagusi diren garaiotan. Testuinguru horretan, webguneen erreferentzialtasuna aldarrikatu zuen. "Webguneak gure etxea izan beharko luke" eta horien bidez "tokian tokiko beharrak" lehenestearen alde egin zuen; atariok izatea komunikazio beharrei erantzuteko ereduaren abiapuntu eta, gero, "hortik bideratzea sare sozialak". Ildo horretan, onuragarritzat jo zuen "bitarteko ezberdinak izatea gure jarduna helarazteko". Horretarako garrantzitsutzat jo zuen "zer eredu sustatu nahi dugun" argi izatea, beharrak edota desioak

egoki identifikatuak izatea. Sare sozial askeei erreparatu zien. Izan ere, "sare sozial bakarra izateko aukera ematen dute" eta sare bakar horretatik, gainerakoak jarraitzeko aukera, "elkar komunikatzeko aukera". Ondorioz, aukera gehiago eskaintzen ditu "sare batean egoteak hortik eragiteko". Gauza guztien antzera, aukera horrek ere baditu desabantailak, ordea; hedapen eta erabiltzaile gutxi dituzte. Komunikazio burujabe baterako gako gehiago ere gogorarazi zizkigun; alor honen kontrola izaten laguntzen duten kartelen nahiz mezulartza tresnen bidezko edota ahoz ahokoak ahalbidetzen duen hartueman zuzena.

Erabilera moduak

Jardunaldiaren bigarren zatia mahainguru batean bildu zituen herriko gazteekin lanean diharduten Ziertza Gazte Elkarteko, Usurbil Kirol Elkarteko eta Zumarte Musika Eskolako ordezkariak. Sareen munduan zer nolako komunikazio ereduak sustatzen duten ezagutzeko parada izan zen Potxoenean. Eskubaloi taldeen bilgunean esaterako, "komunikazio politika integrala" lantzeko ahaleginean dabilzala adierazi zuen bertako kirol zuzendari Julen Nazabalek. Entrenamendu saioetan komunikazio zuzena bultzatzen dutela zioen, nahiz whatsapp zerbitzua eraginkorreragotzat jo eguneroko jardunaren gorabehera buruz ari zireko. Halere, zioenez, "erabilera egokia" sustatzen dute. Instagrama dute, argi baitute "hor egon beharra" dutela haien jarduna gizarteratzeko; Youtuben ere bai, kasu honean, lehen nazional mailan lehiatzen ari den taldearen Oiardoko partidak eskaintzera behartuak daudelako. Aurrera begira, ordea, Usurbil K.E.-ren berri emango duen "webgunea sortzeko bidean" direla jakinarazi zuen Nazabalek.

Sare sozialen erabilera jarri zuen hain zuzen, arreta Zumarte Musika Eskolako zuzendari Idoia Arruabarrenak. Gainerako komunikazio herriamintzen antzera, egoki erabiliz gero onuragarria izan ziteekela zioen baina mundu birtual hau ze azkar doan eraldatzen ohararazi zuen eta konturatzerako nola aurre

"WEBGUNEAK GURE ETXEA IZAN BEHARKO LUKE ETA HORIEN BIDEZ, TOKIAN TOKIKO BEHARRAK LEHENETSI"

—> hartzen diguten aldaketok. "Kontu handiz erabili beharreko tresnak dira", nabarmendu zuen. Izan ere, Zumar-tek belaunaldi guztietako ki-deak ditu, hasi 4 urtetik eta 75 urtera artekoak. Oraindik, hor dagoen arrakala digitala nabarmendu zuen. Esaterako, matrikulazio garaia helduta-koan, nola helduenek ez duten gainerakoek duten trebetasun maila bera izen-ematea onli-ne izapidetzerakoan. Horre-gatik, aurrez aurreko zerbitzu presentzialaren nahiz beste-lako, hau da, papereko (kar-telak...) komunikazio euska-rrien erabileraren beharra aldarrikatu zuen.

Adimen artifiziala

Gaurkotasun handiko beste gai bat ere jarri zuen mahai gainean; adin txikikoen eta haien irudien tratamendua-rena hain zuzen. Baimen bidez funtzionatzen dute, eta argaz-kietan ateratzeko baimena ematen ez dutenak egun gehi-xeago direla adierazi zuen. Kontsultak egin behar izan dituzte, esaterako, igaro den 40. urtemugako argazki zahar-ren erakusketa antolatu zu-tenean bezalaxe. Izan ere, garai batean ez zen baimenik eskatzen.

Ildo beretik mintzatu zen baita Usurbil K.E.-ren ordezkaria. Joera bera, baimena ematen ez dutenen igoera sumatu dute. "Oso gai kora-pilatsua da", adierazi zuen, eskubide indibidual eta kolektiboak talkan jartzen ditue-lako. Eragileok bezala DBH-koekin lan egiten dute baita Ziortza Gazte Elkartekoek ere. Tarteko bide bat hartzearen aldeko hautua egiten dute. Irudien tratamenduari lotu-



Ziortza Gazte Elkartek, Usurbil Kirol Elkartek eta Zumarte Musika Eskolak parte hartu zuten jardunaldian.

tako bi baimen eskatzen di-tuzte; bat, ikasturtean zehar egiten dituzten ekintzetarako eta bestea, udako kanpaldira-ko. Talde argazki orokorrak ateratzen ahalegintzen dira helburu argi batekin; "herria-ri nahiz gurasoei zer egiten dugun erakusteko" soilik. Iru-dion hedapenari dagokionean, mugikorra lehen aldiz geroa-go emateko egin den ahalegi-nak islada izan du haien jar-dunean. Altxa Burua mugi-menduak egituratu duen es-kaera horrekin bat egiteaz gain, haien jardunean gauzatzea heldu dira. Hala, Eneka Muño-

zek eta Jona Allurrek azaldu zutenez, "ahoz ahokora" itzu-li dira gazteekin; haien gura-soekin posta elektroniko bidez komunikatzen dira. Sortuak dituzten whatsapp taldeak informatiboak dira, ez dago interakziorik.

Herri mailako sarea

Adimen artifiziala bai edo ez, edo zer nolako erabilera egin. Eztabaida sakona pizten ari den gai hau ere ekarri zuten eragileen mahaingurura. Usur-bil K.E.-tik adierazi zuen Na-zabalek baietz, erabiltzen dutela diseinu lanetarako

edota estatistika datuak bil-tzeko. Entrenatzailea ere bada bera eta, esaterako, beroketa ariketen tarte prestatzeko ere baliagarri zaiola gaineratu zuen.

Zumarteko ordezkariak adi-men artifiziala eta sorkuntza-ren arteko talka mahaigaine-ratu zuen. Arruabarrenak kezkatu galdetu zuenez, mol-daketak egiteko baliabide hori erabiltzetik haratago, tekno-logia berri horren eraginez "jendeak sortzeari utziko dio?".

Irudiari soilik ez hizkuntza-ri ere erreparatu nahi izan zioten. Euskaraz komunikatzen dira nagusiki eragileok, nahiz ezinbestekoa dutenentzako komunikazio hori elebitan gauzatu.

Askotariko kezkak, galderak azaleratu zituen jardunaldiak, baina baita balizko erantzunen bat ere. Herri mailako sare sozial bat eratzekeo ideiak tar-tea hartu zuen jardunaldi amaieran.

**"GAURKOTASUN
HANDIKO GAIA ERE
JARRI ZEN MAHAI
GAINEAN; ADIN
TXIKIKOEN ETA
HAIEN IRUDIENA"**

**"HERRI MAILAKO
SARE SOZIAL BAT
ERATZEKO IDEIAK
TARTEA HARTU
ZUEN JARDUNALDI
AMAIERAN"**

ARANKA
BERRIKUNTZAK
· Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak
· Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
· Igeltseritza orokorra
606 37 21 05 USURBIL

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil



Iazko Aginagako Euskararen Galan parte harturiko artisten taldea.

Euskarari gorazarre egiteko astea

Ate joka dugun abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekimen antolatu dira egunotarako; ikuskizunak, liburu aurkezpena, kantu saioak, film proiektzioa... Adi sarreraren salmentari.

ARITZ LASARTE

Euskarari gorazarre egin eta bizi duen larrialdi linguistikoa gogora ekartzeko eguna izango da abenduaren 3ko geure hizkuntzari eskainitako nazioarteko eguna. Usurbilen hainbat ekimen antolatu dituzte beste hainbeste herri eragileek. Segidan dituzue, orain arte bildu ahal izan ditugunak zerrendatuak.

Hasteko, hilaren 26ko udalbatzaren osoko bilkuran egun horri begirako adierazpena bozkatuko dute udal ordezkariak. Hurrengo larunbatean, kantua izango dugu protagonista eguerdi partean; lehen-bizi, Usurbilgo Euskal Kantu Taldearen kantu-jirarekin eta, segidan, txartelak agortu dituen Aialde-Berriko kantu bazkariarekin. Arratsaldean, gazte-txoenen txanda. NOAUA!

Kultur Elkartearen eta Usurbilgo Udalaren eskutik, "Zerua lapurtu dute" Porrotx, Marimotots, Pupu eta Loreren emanaldia eskainiko da Oiar-do kiroldegian. Eta eguna borobiltzeko, denetariko tokiko nahiz Euskal Herriko sortzaileak batuko dituen bosgarren Euskararen Gala Aginagako Eliza Zaharra elkargunean.

Biharamunean, azkenaldiko euskarazko film berrienekin ("Jone, batzuetan" eta "Karmele") NOAUA! KulturElkartek osaturiko zikloa borobiltzeko Paul Urkijoren "Gaua" proiektatuko du Sutegin.

Abenduko lehen astean izango du segida ziklo horrek hilaren 3an egingo diren ekimeneekin. Borobiltzeko, biharamunean, hilaren 4an, Yolanda Arrietak NOAUA! K.E.-rentzat

prestaturiko "Pox, Moxeta Trumoi, ederra kasketa!" liburua aurkeztuko du udal liburutegian.

Euskararen Astea

Azaroak 29, larunbata

• **12:00** Kantu-jira Mikel Laboa plazatik. Ez ahaztu kantu-liburuxka. Antolatzailea: Usurbilgo Euskal Kantu Taldea.

"BIZI DUGUN LARRIALDI LINGUISTIKOA GOGORA EKARTZEKO EGUNA IZANGO DA"

• **14:00** Kantu bazkaria Santueneako Aialde-Berri sagardotegian. Sarrerak agortuta. Antolatzailea: Santuenea Kultur Elkartea.

• **17:00** "Zerua lapurtu dute" Porrotx, Marimotots, Pupu eta Loreren emanaldia Oiar-do kiroldegian. Sarrerak: 8 eurotan usurbilkultura.eus plataforman. Antolatzaileak: NOAUA! Kultur Elkartea eta Usurbilgo Udala.

• **22:00** 5. Euskararen Gala Aginagako Eliza Zaharra Elkargunean. Parte hartzaileak: Agus Barandiaran (Korrontzi), Jon Maia, Petti, Xabin Fernandez, Eider Arsuaga, Asier Kidam, Esti Curiel, Mikel Bermejo, Ilargi, Unai Gaztelumendi, fotokola, aurkezleak, Dj Totoro... Sarrera: 10 eurotan usurbilkultura.eus plataforman edo Arrate ostatuan.

Antolatzailea: Aginaga Eliza Zaharra Elkargunea. Laguntzailea: Udala.

Azaroak 30, igandea

• **18:00** "Gaua" filmaren proiektzioa Sutegin. Sarrerak: aurrez 6 eurotan usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri. NOAUA! K.E.-ko bazkideek 4 eurotan kultur elkartearen egoitzan. Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkartea.

Abenduak 1, astelehena

• Mikel Laboa hil zenetik hamazazpi urte beteko diren egunean, bere musika entzungai Mikel Laboa plazan.

Abenduak 3, asteazkena

• Euskararen Nazioarteko Eguna.

Abenduak 4, osteguna

• **18:00** Yolanda Arrietak NOAUA! K.E.-rentzat prestaturiko "Pox, Mox eta Trumoi, ederra kasketa!" liburu aurkezpena Sutegi udal liburutegian. Antolatzailea: Sutegi udal liburutegia.



Otsaileko NOAUA! K.E.-ren Kulturaldian estreinatutako Alex Telloren "Animo" filma proiektatuko dute Durangoko Azokan.

Usurbilgo kultur ekoizpena, 60. Durangoko Azokan

Abenduaren 5etik 8ra egingo den 60. Durangoko Azokak herri ordezkaritza izango du egunero. Usurbilen nahiz herrikideek ekoiztako sorkuntza lanak ezagutu edota eskuratzeko aukera izango da lau egun horietan.

ARITZ LASARTE

Antolatzaileen esanetan, inoizko eskaintza handienarekin dator abenduaren 5etik 8ra egingo den 60. Durangoko Azoka. "285 erakusmahai ipiniko dituzte 175 partaideren artean, eta 1026 kultur nobedade egongo dira kulturazaleek hartzeko eta emateko; horietatik 694 liburuak, 163 musika ekoizpenak, 30 aldizkariak eta 139 bestelako ekoizpenak (fanzineak, audioliburuak, podcastak...) izango dira. Lan berriak aurkezteko 273 ekitaldi programatu dira". Euskal kulturaren berritasunei egokitzen dakien seinale, bi gune berri izango ditu Durangoko Azokak: Berbagailua (Podcasten plaza) eta Atarte (Arte Ederren plaza). Estreinakoz, gainera, azoka itxi osteko gauean segida izango dute kon-

tzertu, proiektzio edota ikus-kizunekin.

Sei hamarkadako ibilbidea goraiatu nahi du Durangoko Azokaren antolakuntzak, aurtengo edizioaren egitaraua aurkezteko azken asteotan eginiko agerraldian nabarmendu zuten. "Harro aldarrikatu nahi dugu gaur, Durangoko Azokak izandako bilakaera eta pozik heltzen diogu aurrean dugun erronkari".

Urtero moduan, Usurbilgo herri sorkuntza eta sortzaileen parte hartzea izango du 60. Durangoko Azokak. Segidan duzue aurtengo edizioako programazioak izango duen herri ordezkaritza edo herri honekin nolabaiteko lotura izango duten hitzorduen berri. Durangokoazoka.eus atarian duzue informazio gehiago.

Usurbil, 60. Durangoko Azokan

Abenduak 5, ostirala

- **13:00-14:00** Talaia-Landakogunea: "Zer egingo dugu idazketarekin?" mahaingurua. Yolanda Arrieta, Nerea Loiola eta Amaia Egidazu. 1545 argitaletxea.
- **18:00-18:30** Ahotsenea Musika-Plateruenan: Mihise taldearen "Ahaldata" disko aurkezpena.

"URTERO MODUAN, USURBILGO HERRI SORKUNTZAREN ETA SORTZAILEEN ERAKUSLEIHO IZANGO DA"

- **18:00-19:00** Talaia-Landakogunean: "Sortzaileek herria": Udalbiltzaren Geuretik Sortuak egitasmoaren aurkezpena.
- **18:15-18:45** Saguanbarrak-Elkartegian: "Su txikian" ipuin kontaketa. Olatz Mitxelena, Yolanda Arrieta eta Irati Eguren. 1545 argitaletxea.

Abenduak 6, larunbata

- **13:30-14:00** Talaia-Landakogunean: Argiaren "Bizi baratztea: lurrari begiratzaren diogunon orria" liburuaren aurkezpena, Jakoba Errekondo.
- **19:30-20:00** Talaia-Landakogunean: "Heziketa libre" liburuaren aurkezpena. Ane Ablanedo eta Olatz Lasagabaster. Hik Hasi.

Abenduak 7, igandea

- **11:00-12:00** Atarte-Durango Museoan: Lanartearen liburu aurkezpena eta mahaingurua. 16 euskal kulturgile beteranoiei eginiko elkarrizketa sorta. Elkarrizketatuen artean dira Joseba Tapia (musikaria) eta Yolanda Arrieta (idazlea).
- **13:20-13:50** Ahotsenea Musika-Plateruenan: Ilargiren "Dolu(s)min" disko aurkezpena.
- **14:30-15:00** Talaia-Landakogunean: "Mister Eleizegi" Joseba Tapia eta Koldo Izagirreren disko berria.
- **16:00-16:30** Atarte-Durango Museoan: "Ama" liburuaren aurkezpena. Urtzi Ugalde, Iñurri elkarte, Trinchera.
- **18:00-19:50** Irudienea-Zugazan: Alex Tello Arostegiren "Animo" ikus-entzunezko lanaren proiektzioa.

Abenduak 8, astelehena

- **11:00-12:50** Irudienea-Zugazan: Usurbilen ere grabatutako "Akelarre: marearen kontra" dokumentala.
- **12:00-13:50** Irudienea-Zugazan: Usurbilen ere grabatutako EITBren "Irabazi arte" telesailaren 5. denboraldiaren proiektzioa.



Barrenkale 2an kokatuko dira bi zerbitzurentzako egoitza berriak.

Egoitza berria Udaltzaingoarentzat eta gizarte zerbitzuentzat

Barrenkale 2an kokaturiko egungo udal biltegia, gizarte zerbitzuen eta Udaltzaingoaren egoitza izango da etorkizunean. Sei bat hilabete luzatuko dira egokitze lanak. Horiei esker, udal zerbitzuen berrantolaketa ahalbidetuko da.

Aurtengo udal aurrekontuen onarpenean udal gobernu taldeak iragarritakoa betetzera doaz. Izan ere, udaletxea kokatua dagoen Joxe Martin Sargardia plaza ondoko Barrenkalen aipatu erakundeak duen lokala eraberritu eta egokitzea doaz, etorkizunean bertan kokatuko dira eta bi zerbitzu;

Udaltzaingoa eta gizarte zerbitzuak.

Biltegi gisa erabiltzen dute egun
Barrenkale 2ko lokalaz ari gara. Kale Nagusiko Lurraldebusen autobus geltoki parean kokatua dagoen udal egoitza da. Egun, Udaletik bertatik jakinarazi duten moduan, "loka-

la biltegi gisa erabiltzen" dute. Hasiak dituzten egokitze lanen ondotik, Udaltzaingoaren eta Gizarte Zerbitzuen egoitza izango da gune bera. "Sail bakoitzak bere sarrera propioa izango du: Udaltzaingoaren sarrera autobus geltokitik gertuen geldituko dena izango da, eta Gizarte Zerbitzuen Barrenkaleko aparkalekutik gertuen geldituko dena. Bi sailen kasuan, herritarrei harrera duina ematea da aldaketa beharrezko arrazoi nagusia, haiengana jotzen dutenen pribatutasuna bermatuz: izan ere, batean zein bestean, zailtasun hori dute, gaur egun", Udaletik aurreratu dutenez. Izan ere, "bi sailen kasuan, egungo bulegoak txiki gelditu zaizkie, eta zerbitzu egokiagoa eskaintzeko helburua izango du aldaketak".

Udal zerbitzuok berrantolaketa ahalbidetuko dutelarik. "Izan ere, udaletxean eta Kale Nagusia 43an hutsik geldituko diren espazioei bestelako erabilera emateko aukera emanango du".

Udalak "4 Badia Mantentze Zerbitzuak enpresari esleitu" dizkio lanak, "328.069 euroan (BEZ barne), eta sei hilabete irautea aurreikusten da".

Doako bi formakuntza-saio Usurbilgo merkatarientzat

Erretiroa gertu duten eta beren negozioa ixtea nahi ez duten establezimenduen jabeek aukera izango dute beraien negozioaren jarraipena eta eskualdatzea modu planifikatuan prestatzeko.

Beterri-Buruntza mankomunitateak doako bi formakuntza-saio antolatu ditu:

• Abenduaren 9an: langile autonomoaren erretiroaren funtsezko alderdiak.

• Abenduaren 16an: enpresa txikien balorazioaren funtsezko alderdiak.

Bisaioak, 14:00etatik 16:00etara, Potxoenean. Izena emateko ondorengo formularioa bete behar da: <https://forms.gle/kvuRAuEpBqNJQw1f6>

Formakuntzez gain, Beterri-Buruntza Mankomunitateak "doako aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen du etengabe, pertsona bakoitzaren erritmora eta beharretara egokituta". Hitzordua eskatzeko enpresa@beterriburuntza.eus helbidera idatzi daiteke, edo 943 244 523 telefonora deitu.

Datozen asteetan zabalduko dira 2025eko kontratazio dirulaguntzak

Beterri-Buruntza mankomunitateak sustatzen du tokiko enplegu ekintzen programa.

Lagunduko diren kontratu motak

- 2025eko urtarrilaren 1a eta 2025eko azaroaren 30a bitartean hasitakoak.
- Kontratu mugagabeen modalitatean formalizatuak direnak. Edo ikuskizun publikoetako artisten eta teknikarien eta laguntzaileen iraupen mugatuko kontratuak, betiere iraupena gutxienez 3 hilabetekoa bada.

- Gutxienez %50eko lanaldi duten kontratuak.
- Enpresaren batz besteko langile kopuruaren gehikuntza dakarten kontratuak. Enpresa bakoitzak bi kontraturako eskatu dezake dirulaguntza, eta bakoitzaren gehieneko zenbatekoa kontratatutako pertsonen urteko soldataren eta gizarte segurantzako kostuen guztizkoaren %75a izango da.

Laguntzaren zenbatekoak:

- 8.000 euro lanaldi osoko kontratu bakoitzeko. Lanaldi par-

tzialeko kasuan, laguntza proportzionala izango da.

- Iraupen mugatuko kontratuen kasuan:

- 3.000 euro 3 hilabeteko lanaldi osoko kontratu bakoitzeko.
- 6.000 euro 6 hilabeteko lanaldi osoko kontratu bakoitzeko. Lanaldi partzialeko kasuan, laguntza proportzionala izango da.

Bestelako kasuak:

Kolektibo hauetako pertsonak kontratatzen diren kasuan, zenbatekoa 10.000 eurokoa izango da kontratu mugagabeen kasuan eta 7.500 eurokoa 6 hilabete edo gehiagoko kontratu mugatuetan:

- DSBE/BGDSaren titularrak edo onuradunak.

- 35 urtetik beherako pertsonak.
- Luzaroko langabeak.
- 55 urtetik gorako pertsonak.
- Dirulaguntzak emateko modua norgehiagoka bidezkoa izango da.

Balorazio irizpideak:

Kolektibo kalteberen lehentasuna, enpresaren izaera, euskararekiko konpromisoa eta genero berdintasuna.

Deialdi honi buruzko xehetasunak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aurkituko dituzue. Kontratazio dirulaguntza hauen informazio gehiago jaso nahi duenak, Beterri Buruntza mankomunitatearen email honetan jaso dezake: enpleguekintzak@beterriburuntza.eus

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Usurbilen alokairuan hartzeko etxe edo logela baten bila nabil. 618 773 004.

10 urte Usurbilen alokairuan bizi den familia bat gara. Bost pertsona gara. Alokatzeko etxeren bat baduzu deitu: 68865344.

Etxebizitza bila dabilen familia gara. 688 653 441.

Usurbilen (erdigune edo auzoetan) alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil. Pertsona bakarra naiz eta ez daukat animaliarik. Diru sarrera finkoak ditut. Harremanetarako: 630089127

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadro. 685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. Harremanetarako: 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA/KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Oiardo kiroldegiko harreraren lan egiteko pertsona bat behar da, asteburuetarako. Interesatuak kurrikuluma bidali: jmerrasti@equiponeo.com

Aginaga sagardotegian asteburuetarako zerbitzari bila gabiltza: 943 37 06 68 / info@aginagahotela.com

Andatza taberna sukaldari laguntzailer bila dabil. 627841927.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Sukaldeko laguntzaile lanetan edo pertsona helduak zaintzeko lan bila dabilen mutil arduratsu bat naiz. Erreferentzia onak ditut eta paperak eta gidatzeko baimena eguneratuta. 688676540

Orduka eta egunez, adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko eskaintzen dut nire burua: 747 446 091.

Usurbilen bizi naiz. Pertsonen zaintza edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Titulu soziosanitarioa dut. 645 067 560.

Lan bila nabil ume zaintzarako edo eskolako lan esfortzurako. Haurren aisialdirako hezitzailea naiz eta esperientzia handia dut. 688 699 986

Orduka aritzeko lan bila nabil. Garbiketa lanak edo pertsonen zaintza aritzeko prestutasuna. 623443766
Pertsona helduan zaintzeko lan bila nabil. Titulazioa dut eta esperientzia handia. 618814363 (Marta).

BESTELAKOAK

Bigarren eskuko furgoneta edo kombi baten bila gabiltza. Harremanetarako: 626419583

LH6ko ikasle batentzat, euskara erretortzurako irakasle bat behar dugu Aginagan. 679 549 862.

Batxilergo 2. maila egingo duen ikasle bati matematika eta fisikako klase partikularrak emateko norbaiten bila gabiltza. 657714355

Frantses irakasle baten bila ari gara, DBH4ko ikasle batentzat. 615758476.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	688 836 728
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Egurtzegi	943 300 563	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Emakumeen Etxea	943 371 112	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

HILDAKOAK



Santos Jauregi Iriarte
Azaroaren 21ean hil zen, 77 urterekin.

Gure Pakeak telefono zenbakia berria du

"Gure Pakearen bulegoko telefono zenbakia ez dagoela eskuragarri jakinarazi digute". Ohar hori bidali digute Artzabalgo elkartetik. Orain arte, zenbaki haxe erabiltzen zuten: 943 368 770. Egoera honen aurrean, aurrerantzean ondoko telefono zenbaki honetara deitzeko eskaera egin dute Gure Pakeak: 688 836 728.

Pilota partidak

Azaroak 28, ostirala, 17:40

- Infantilak 3. mailan:
- Pagazpe (Zubiaur)-Zarautz
- Pagazpe (Murua)-Arrasate
- Pagazpe (Barandiaran)-Ados

- Kadeteak 2. mailan:
- Pagazpe (Alejo M.)-Ataun

- Jubenilak 2. mailan:
- Pagazpe (Alejo A.)-Eibar

- Jubenilak 1. mailan:
- Pagazpe (Errasti)-Tolosa

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak orrialde honetan:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Eskubaloia, etxean

Azaroak 27, osteguna

- 20:00 Kadete mutilak:
- Usurbil K.E.
- Bera Bera Donibane

Azaroak 30, igandea

- 9:20-13:10 Benjaminen eta alebinen topaketa.
- Oharra: "jokalari, entrenatzaile eta gurasoen sarrera pista urdinetik".

Eskubaloia, kanpoan

Azaroak 29, larunbata

- Ordua zehazteke: Kadete neskak
- A: Kalefit Orio Eragin- Cortes Usurbil K.E.
- 16:00 Senior neskak: Txingudi Zubieder-Urbil-Usurbil K.E.
- 18:15 Senior mutilak: Uhartte-Sai-zar Usurbil K.E.

Azaroak 30, igandea

- 11:00 Jubenil neskak: Usurbil K.E.-Bera Bera Urdina
- 12:00 Jubenil mutilak: Hernani E.T.-Usurbil K.E.
- Oharra: Kadete neskak B taldeak atsedena.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 28

USURBIL Sareren mobilizazioa

20:00 Mikel Laboa plazan:

LARUNBATA 29

USURBIL Afari solidarioetarako bilketa

11:00-14:00 Usurbilgo frontoian.

USURBIL Hurbilagoren Udazkeneko Azoka

11:30-14:30 Usurbilgo frontoian.

USURBIL Kantu jira

12:00 Mikel Laboa plazatik.

SANTUENEA Kantu bazkaria

14:00 Aialde-Berrin.

USURBIL "Argizaiola" liburu aurkezpena

17:30 Salvatore parrokian.

AGINAGA Euskararen Astea: Euskararen Gala

22:00 Aginagako Eliza Zaharrean.

IGANDEA 30

USURBIL 24. Erle Eguna

09:00-10:00 Ezti eta gozogintza bilketa. 11:00-14:00 Azoka.

USURBIL Afari solidarioetarako bilketa

11:00-14:00 Usurbilgo frontoian.

USURBIL "Gaua" filma Sutegin

18:00 Sutegin.



Larunbat honetarako makrame-bitxigintza ikastaroa antolatu dute Txokoargin.

Bi ikastaro Txokoalden

Txokoaldeko Txokoargi elkarteok azaroaren 28an eta abenduaren 12an sendabelarre buruzko ikastaroa antolatu dute 17:30ean, izen bereko auzo elkartearen egoitzan bertan.

Leire Lazkanok bideraturiko saioetan 12 lagunentzako toki egongo da. Prezioa, 20 euro. Izena emateko, telefono zenbaki honetara deitu behar da: 619 591 849.

Makrame-bitxigintza ikastaroa

Azaroaren 29an, 16:30-18:00 artean, Txokoargi elkartearen, 7 urtetik aurrerakoentzat. Adin txikiagokoak izanez gero, gurasoekin eman dezakete izena. 3 euroko kostua izango du ikastaroak. Partehartzaile kopuruaren arabera, bi talde egingo lirateke.

Izena emateko whatsapp mezua helarazi behar da, 607 233 255 telefono zenbakira.

Usurbilgo gazte feministen topaketa

Igande honetarako antolatu dute, arratsaldeko 17:30ean, Kalezarko Pelaioenean kokaturiko Usurbilgo Emakumeon Etxean (merienda barne). Gaiok hartuko dituzte ahotan: Harrera eta harremantzeko espazioa; Usurbilgo gazte feministok... zer? Non gaude eta nora goaz?; "Gure lubakia" definitzen: gure beharrak, erronkak eta lehentasunak identifikatu; hurrengo urratsak marraztu.

Sutegiko hurrengo ekintzak**Abenduak 4, osteguna**

- 18:00-18:45 Yolanda Arrieta eta Ane Arzelusen "Pox, Mox eta Trumoi, ederra kasketa!" ipuin-liburuaren aurkezpena.
- 2-6 urte bitarteko haurrentzat eta euren familientzat.

Abenduak 9, asteartea

- 16:45-17:45 Karmele Mitxelenaren 'Aitona Floren' liburuari buruzko irakurketa-solasaldia.
- 9 urtetik gorako haur eta gaztetxoentzat.
- Bideratzailea: Yolanda Arrieta.
- Liburuak liburutegian eskuragarri.

Abenduak 11, osteguna

- 18:30-19:45 Goiatz Labandibarren 'Bekakua' liburuari buruzko irakurketa-solasaldia. Alaine Agirrek gidatuko du.
- Liburuak liburutegian eskuragarri.

Abenduak 12, ostirala

- 18:30-19:45 Yolanda Arrietaren "Jostorratza eta haria" liburua berrargitalpenaren aurkezpena.

TXAPELDUN
ARDANGELA

EGUNEKO MENUA
PLATERAK
OGITARTEKOAK
RAZIOAK
ARROZAK
OILASKO ERREA

Muna lurre 2, 943 49 88 83

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

• komertzial instalazioak • beira bikoitza • segurtasun beirak • ispiluak
• dutxa-itxiturak eta irristailuak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

www.noaua.eus

POX, MOX ETA TRUMOI **EDERRA KASKETA!**

Ipuin berriaren irakurketa eta solasaldia
Yolanda Arrieta idazlearen eta Ane Arzelus ilustratzailearen eskutik

Abenduak 4, osteguna
18:00 Sutegi udal liburutegian

Sarrera **doan**



UDAZKENEKO

AZOKA

USURBIL

**USURBILGO
FRONTOIAN**
AZAROAK 29
11:00 - 14:30

11:30-14:30
PULTSERA TAILERRA
ZIORTZA GAZTE
ELKARTEAREN ESKUTIK

**GAZTAINAK
ETA SAGARDOA
DOAN**
AZOKAN EROSKETA
BAT EGINDA

13:30
650 USURBIL BIZI
USURBILGO EKOIZLEEN
PRODUKTUEKIN OSATUTAKO
GABONETAKO OTARRA

PARTE HARTZAILEAK

USURBILDIK: SLEEPY MIMOSA, DALE KANDELA,
LIZARDI LIBURUDENDA, XÜKÂ ESKUZ EGINA, MAKAE,
MIKEL ZUBELZU, JOX, IÑURRI, AZI, ARENZA,
ZIORTZA GAZTE ELKARTEA, IONE IRURETAGOIENA.

GONBIDATUAK: NAI BITXIAK, HARITXOA,
MUMI HANDMADE JEWELLERY, HEMENDIK HARA,
AMAETABIOK, AGUR.HANDMADE,
ESTHER DE DONOSTI, CIAOBELLAIDO, CREA, URLUMA,
N.MONE, BIHURRI, ALDAXKA ESKUZ EGINA,
NI NAIZ, OSABI NATURALA, NORTE JEWELLERY, LAJTAU
CRAFTS, TAI DAY STUDIO, POTT KERAMIKA.

LAGUNTZAILEAK

ANTOLATZAILEA